

NOLA EGIN UDALEKU PARTE-HARTZAILEA



HERRI
HEZITZAILEA

3

- Herri Hezitzailea lantaldea:

Irrien Lagunak Kluba, Lizarrako eta Iruñeko udal haur-eskolen taldea, Hik Hasi pedagogia-ekimena, Oarsoaldeko Garapen Agentzia, Topagunea, Sorguneak ikertegia (Huhezi, MU), Ikastolen elkarteko aisialdiko taldea, Tabakalera, Amarauna Sarea, Pil-pilean euskara elkarte, Kukumixo, Arrasateko Txatxilipurdi euskara eta aisialdiko elkarte, Urtxintxa Bizkaia Eskola eta Ttakun Kultur Elkarte.

- Koaderno honen egilea:

Amarauna aisialdi taldeen arteko sarea

- Maketazioa eta ilustrazioak:

Eñaut Aiertzaguena Bravo

-Argazkiak:

Karkabia, Kukumixo eta Kimuak

- Inprenta:

Gertu inprimategia

- Babesleak:



Gipuzkoako
Foru Aldundia

- Bildumaren ISBN:

978-84-606-672-6

- ISBN:

978-84-606-7249-4



Zazpi kontzeptutan oinarritzen da hemen proposatzen dugun aisia-eredua. Zazpi eremu horiek elkarrekin ezkontzen, garatzen eta aberasten dira, eta, proposamen koherente eta oso bat egin ahal izateko, zazpiek halaberrez elkarrekin joan behar dutela uste dugu.

Horrela formulatu ditugu gure lan-eremua eta xedea:

- Jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko berariazko tresnatzat dituen **haurren kultura aitortzea**;
- Hori oinarri hartuta, haurrei **benetan parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmena** ematea;
- Eurek eraikitako **aisia hezitzaile** eta **euskaldunaren** bitartez, **aniztasunean berdin eta parekide izanez** eta **ingurumen naturala eta kulturala zainduz, komunitate-sarea eta auzolana** indartzea
- Pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak jostea.

AURKIBIDEA

- UDALEKU PARTE- HARTZAILEEN IZAERA	6
- UDALEKU PARTE- HARTZAILEEN HELBURUAK ETA EZAUGARRIAK	8
- HELDUEN PARTE-HARTZEA UDALEKUETAN	10
- ARDATZ METODOLOGIKOAK	14
- EBALUAZIOA	18
- EKINTZA PROPOSAMENAK	22
- FILOSOFIA HONI ESKUTIK HELDUTA ARI DIRA	31
- ERANSKINA	32

UDALEKU PARTE—HARTZAILEEN IZAERA

Zeri deritzogu udaleku parte-hartzailea?

Udaleku bati buruz hitz egiten dugunean, irudi argia etortzen zaigu burura. Izan litezke udaleku irekiak edo itxiak, elkarte batek antolatutakoak edo erakundeetatik bideratutakoak, finkoak edo ibiltariak, iraupen luzeagokoak edo laburragokoak... Baina guztietan errepikatzen dira protagonista komun batzuk: udalekuetara doazen haur edo gazteak, horien familiak eta udalekue-tako hezitzaileak.

Udaleku parte-hartzaileak esaten dugunean, ordea, irudikapen ugari egin ditzakegu. Azken aldian parte-hartzeaz maiz hitz egiten den arren, zer da parte-hartzea udalekuen kasuan? Edota nola ulertzen dugu parte-hartzea udalekuetan?

Udaleku parte-hartzaileen ideia orain arteko lan-moldearen erroko kritika batetik datorkigula esan dezakegu. Egiteko modua egunero hobetzeko ahaleginaren gainetik, gure jardunak sustraletan hutsune nabarmena duela konturatu gara. Haur eta gazteen nahi eta beharrak identifikatzen ahalegindu izan gara, modako korrante pedagogikoei jarraituz. Haurren heziketa helburu jakin batzuetara bideratu nahian ezarritako ekintzez eta programez osatu izan ditugu udalekuak askotan. Aurrez jarritako helburu batzuk betetzera iristeko, programazioak diseinatu izan

ditugu. Udalekuetara etorriko diren haur horiei komeni zaiena edo beren aisialdirako behar dutena gure esperientziatik diseinatu dugu, hezitzaileen eta helduon uste eta bizipenetatik.

Egindako lanaren duintasuna eta lan eskerga hori bera azpimarragarriak badira ere, ez dugu kontuan izan orain arteko gure ekimenetako jardunean haur eta gazteek hartzaile funtzio heretsia bete izan dutela. Ekimeneen izaera ludikoa haur eta gazteen motibaziorako elikagai bada ere, oinarrian hezitzailearengandik umearenganako norabide bakarreko heziketa eta eskolakoaren antzekoa den jarduna eskaini izan ditugu; harreman-eredu eta metodologia bertsuak errepikatzen ditugu; eta, sarri, gure jarduna espazio itxietara ere mugatu da, eta, zenbait kasutan, monotono eta itogarri izatera ere iritsi da.

Programazioaren fase horretan indar guztiak jarritz eta hein batean itsututa, haurrak eurak ulertzea ahazten zaigu, eta beren zirrara eta sentimenduak saihesten eta beren bizi esperientziak alboratzen ditugu.

Haurrek euren modu etiko, estetiko eta poetikoa dute mundua ikusteko eta euren bizitzari eta existentziari zentzua ematen dieten hipotesiak, teoriak eta metaforak eraikitzeko. Pertsona bakoitzak duen identitate singularra ukatu gabe, esan dezakegu haurrek kolektibo-izaera dutela funtsean; aitortu edo

ez aitortu, izaera hori dutela. Hari horri jarraiki, liluratu egiten gara haurrak beraiek asmatutako jolasen batean jolasten ikustean; baina, kontraesana badirudi ere, une horretan haur horiek bizitzen ari diren esperientzia aberasgarri hori ikuspuntu hezitzaile batetik ikusteari uzten diogu. Hau da, haurren jarduera funtsezkoena da berezkoa duen jolasa, haurtzaroaren kulturaren funtsa da, eta ikasketa-prozesuaren motorra.

Oro har jendartean eta zehazki udalekuetan hori horrela denez, helduok haurtzaroaren kultura hori ulertzeko lan egin behar dugula aldarrikatzen dugu. Gure begiradak haurren parera jaitsi behar ditugu. Haurrei berengan jarritako itxaropenen kateetatik askatzen lagundu behar diegu. Etorkizuneko subjektu bezala begiratzeko ikuspegia aldatuz, gaur eta oraineko subjektu izaera aitortu behar diegu; beren bizi-tzetako subjektu aktibo izaten utzi behar diegu, bai eta beren aisialdiko subjektu izaten ere.

Horrez gain, haur izatetik heldu izate-rako prozesuaren ikuspegi zurruna alboratzea ere aldarrikatzen dugu, batez ere nerabezaro izenez ulertzen dugun aldiaren ikusmolde hertsia kritikatz. Identitatearen eraikuntzan eta burujabe izateko etengabeko prozesuan, heldutasunaren kanonaren epaiketak saihestu behar ditugu, eta pertsonaren adinaren arabera norbanakoen bizi-prozesuak errespetatu gabe egitea irauli beharra dagoela ikusten dugu.

Udaleku parte-hartzaileetan, beraz, haur eta gazteak proiektuaren erdigunean direla berretsiko dugu, eta aipatutako ikuspuntu berri horri hauspoa emango diogu. Udalekuen prestaketa,

garapen eta ebaluazioko fase guztiak haurrekin batera egiteko bideari ekingo diogu, ahal den neurrian ardurak banatuz eta iritzi eta esperientziak trukatzuz.

Udaleku parte-hartzaileetatik hasita proposatzen dugun lan egiteko modua aisialdiko edozein jardunetara zabaldu behar dugula ulertzen dugu, betiere kontuan izanda udaleku parte-hartzaileen eraikuntza prozesu bat dela, parte-hartzea bera prozesu bat den bezalaxe.

Udaleku motak

Udaleku parte-hartzaileak antolatze-ko eta ekintzak garatzerako orduan teoriatik praktikara salto egiterakoan, kontuan izan beharreko bi aldagai nagusi ikusten ditugu: udaleku mota eta parte-hartzaileen adina.

• Udaleku mota:

Udaleku itxiak, udaleku irekiak eta udaleku ibiltariak

• Parte-hartzaileen adina:

Haur eta gazteak

Aldagai horien arabera, udaleku parte-hartzaile bat eraikitze-ko prozesuaren zehaztasuna modu batekoa edo bestekoa izango da. Lan honetan garatutako ideia asko plano teorikoan ageri zaizkigu, praktikaren erreferentziekin uztartzeko egindako ahalegina ukatu gabe eta jardun espezifikokoak aipatutako aldagai horien arabera oso aldakorrak izan daitezkeela jabetuta. Kasu askotan, irakurleak ez du nahi besteko zehaztasunik aurkituko adibideetan. Hutsune hori izan bedi gutako bakoitzarentzat akuilu, denon hausnarketa, ekarpen eta praktikarekin landuko baitugu jorratu beharreko bidezidorra.

UDALEKU PARTE—HARTZAILEEN HELBUKAK ETA EZAUGARRIAK



Udaleku parte-hartzaileen helbururik behinena haur eta gazteak bere osotasunean garatzeko bitarteko izatea da. Hori horrela izan dadin, uste dugu ezinbestekoa dela pertsonen ahalduntzea. Horregatik, udalekuen bidez haur

eta gazteak ahalduntzea eta burujabe izaten ikastea nahi dugu, norberak bere bizitza eraikitzeko pauso gisa ulertzen baititugu udalekuak azken finean.

Orain arte jardun izan dugun lan-moldea aipatutako helburura ondo egokিতuta egon ez denez, pertsonen ahalduntzea oztopatu izan du, nahiz eta gure asmoa pertsona autonomo eta askeak bilatzea izan den. Gaur egungo gizartea pertsonak ahalduntzeko oztopo dela uste dugu; gizarte bertikal batean bizi gara, eta jendeak ez dauka bizitzaren inguruan erabakitzeko eta iritzia emateko aukera errealik, nahiz eta hala dela sinetsita bizi garen. Gainera, gure aisialdiko jardunetan eredu horiek

“Hurrei berengan jarritako itzaropenen kateetatik askatzen lagundu behar diegu.”

“Udalekuen bidez haur eta gazteak ahalduntzea eta burujabe izaten ikastea nahi dugu.”

errepikatzen ditugula uste dugu.

Parte-hartzearen kulturaren bidez, herritarren antolamenduaren apologia egitea bilatzen dugu. Izan ere, parte-hartzeak hainbat onura ditu; parte-hartzeak norbanakoa jendartearen gaitasun handiagoz eta bere buruarikiko segurtasun handiagoz garatzea ahalbidetzen du, burujabetzaren bidean jartzen du, eta komunitateen antolaketa eta funtzionamendua hobetzen ditu, besteak beste. Bide horretan eta udalekuen bidez haur eta gazteen ahalduntzea gerta dadin, gure jarduna parte-hartzailea izango da.

Udaleku parte-hartzaileen bidez, beraz, haur eta gazteak beraien aisialdiaren protagonista izatea lortu nahi dugu, beraien aisialdia eraikitzea eta kudeatzea; nahi eta beharrak identifikatuz, erabakiak hartuz eta antolatuz. Hala ere, horren bidez ez dugu esan nahi helduak proiektutik baztertu nahi direnik, helduak proiektuaren antolatzaile eta jasotzaile izango baitira hurrekin batera. Horrela, tokian tokikoa izango den eta errealtateari lotuta egongo den

eskaintza sortuko dugu.

Hori horrela izan dadin, beharrezkoa da botere-harremanak orekatzea. Hau da, helduok dugun botereari uko egitea, haurren eskubideak aitortzea eta haurrari subjektu gisa dagokion lekua egitea. Hala ere, botere-harremanak orekatu behar direla esaten dugunean, ezin dugu ahaztu talde baten barruan askotariko botere-harremanak daudela eta guztien arteko oreka bilatu behar dugula: helduen eta haur eta gazteen artean ematen diren botere-harremanak, generoen artekoak, helduen artekoak, gazteen artekoak, taldearen eta inguru naturalaren artekoak...

Laburbilduz, udalekuak gazte-gaztetatik datozen bizi-esperientzia gisa ikusten ditugu, eta nahiko genukeen eguneroko bizitzaren ispilu gisa ulertzen ditugu, aniztasunean, euskaraz eta askeago egiten gaituzten balioekin jolasten garen bitartean, pertsonen arteko harreman justuak nahiz ama lurra-rikikoak berrasmatuz eta esperimentatuz.



HELDUEN PARTE—HARTZEA UDALEKUETAN

Haurren ahalduntze-prozesua ardatz duen parte-hartzearen ikuspuntu horrek, ezinbestean, helduon jarrerak duen garrantziaz ohartzera garamatza, ezinbestekoa baita hori kontuan hartzea benetako parte-hartze osasuntsua lortu nahi badugu. Helduoi dagokigu haurtzaroaren kultura hau ulertzea eta, hortik abiatuta, haurrak beraien esparru guztietan subjektu aktibo izan daitezen lan egitea; eskubide horien garapenari bidea emanaz. Horretarako oinarri izango da hainbat esparrutan helduok haurrekiko dugun botereari uko nola egin lantzea. Ildo horretan, helduen parte-hartzeari buruz hainbat gako garrantzitsu aipatuko genituzke:

Hezitzaileen rola

Hitzak berak adierazten duenez, hezitzaileen ardura litzateke haurrak hezten laguntzea. Baina nola hezi? Haurren parte-hartzea oinarri duten udalekuetan, ezinbestekoa da hezitzailearen rola aldatzea: haurren eginkizunen programatzaile izatetik haurren bidelagun, laguntzaile eta behatzaile izatera pasatu behar du.

Ander Egg-en oinarri teorikoei jarraiki, udalekuetan hauek izan beharko li-

tuzke kontuan hezitzaileak:

- **Udalekuetako arauak elkarrekin adostea:** udalekuetako kide guztien artean modu parekidean arauak erabakitzea litzateke helburua. Ados jar daitezten, ezinbestekoa izango da elkarriketetan txandak errespetatzea, elkarri entzutea, metodologikoki guztion hitza entzungo dela bermatzea... Eta, hortik abiatuta, erabakiak ados jarrita hartzea. Hori horrela izan dadin bermatu eta zaindu beharko du dinamizatzaileak; eta, gero, arau horiek betetzen direla ziurtatu beharko du. Gainera, jakin badakigu hainbat estrategia erabili behar direla udaleku motaren arabera (irekiak, itxiak edo ibiltariak) nahiz udalekuen partaide kopuruaren arabera. Bai eta udalekuko partaideen adinaren arabera ere. Beraz, kasu orotan metodologia eta intentsitatea egokitzen jakin beharko dugu.
- **Komunikazioa ahalbidetzeko bideak eraikitzea:** ahozko komunikazioa zaintzea garrantzitsua den bezala, hitz gabeko komunikazioa ere funtsezkoa da. Hori horrela izan dadin, ezinbestekoa izango da hezitzaileak udalekuetan giro goxoa, enpatikoa, konfiantzazkoa eta maitasuneko eraikitzea. Horrela, haurra seguru sentitzeko eta ahalduntzeko aukerak biderkatuko baitira.
- **Gidaria:** hezitzailearen ardura ere izango da udalekuetan taldearen gidari izatea, udalekuetako prozesu guztia

“Oinarri izango da hainbat esparrutan helduok haurrekiko dugun botereari uko nola egin lantzea.”

modu parte-hartzailean egiten dela bermatzeko.

• **Ekarpenen zerrenda:** prozesuan lagungarria izango da partaideek egiten dituzten ekarpenak zerrendatzea. Era horretara, partaideen ideia guztiak bilduko dira, inor kanpoan utzi gabe. Eta, ondoren, metodologia egoki bat planteatuko da.

• **Ezustekoei erantzutea:** nahiz eta prozesu osoa modu egokian planifikatu, hortik kanpo izango diren gertakarien aurrean erantzun bat ematen jakin behar du hezitzaileak, adostu diren balioetan oinarrituta betiere. Hori horrela izan dadin, ezinbestekoa izango da hezitzaileak balioetan prestatuta egotea eta ziur sentitzea.

• **Gatazken kudeaketa:** hezitzailea udalekuetan zehar sor daitezkeen gatazkek konpontzen ahalegindu behar du, bere bidelagun-rolarekin koherente izanik; eta gatazka horien konponbidean ere haurren parte-hartzea bermatu behar du.

Beraz, hezitzailearen jarrerak garrantzia berezia izango du haur eta gazteen parte-hartzean eragiteko. Hori horrela izanik, parte-hartzea sustatzeko eta haur nahiz gazteen ahalduntzean laguntzeko behaketa iraunkorra bermatuko duten betaurrekoak jantzita ibiltzea komeni da. Ekintza batean pentsaraztetik harago, arestian aipatutako lan-filosofiaren hauspotzea bilatu behar da eguneroko ekintza soilenetan ere. Betaurreko horiek jantzita ditugula aritzeak lagundu egingo digu udalekuen antolaketan haur nahiz gazteen parte-hartzea bermatzen, udalekuen garapenean parte-hartzea sustatzen eta ebaluazio parte-hartzaileago bat lortzen.

Dena den, udaleku motaren arabera (egun kopurua, irekia edo itxia den, urte osoko lanketa bat dagoen edo ez..) nahiz haur eta gazteen adinaren arabera parte-hartze prozesua egokitzeko saiakera egin beharko dute hezitzaileak. Taldearen nolakotasuna identifikatzeko eta metodologikoki pausoz pauso egokitzeko lana izango da hezitzaileena; modu asertiboan haur eta gazteen parte-hartzea sustatuz.

Bidelagun bihurtuko dira hezitzaileak

“Udaleku motaren arabera nahiz haur eta gazteen adinaren arabera parte-hartze prozesua egokitu beharko da.”



poliki-poliki, erdigunean haur eta gazteak kokatuta. Kontuan izan beharko ditugu testuingurua eta ordura arte udalekuetan funtzionatzeko modua; hortik abiatuta, pausoz pauso egokitu gaitezen erronka berri honetara. Eta, horrela, garrantzitsua izango da talde osoari egokitutako prozesua ematea. Parte hartzen ikasi egiten baita; eta bidelagun izaten ere bai. Beraz, hezitzaile guztion arteko adostasunetik abiatuta ekin behar diogu; oinarriak finkatuz eta jarduteko modu eder honi eutsiz.

Bide horretan, garrantzi berezia izango du komunikazioak. Komunikazio argi, zintzo eta irekia izan beharko dugu oinarri. Eta argi ulertu behar dugu eskubide berdinak baina interes eta ezaugarri desberdinak ditugula haur eta helduek. Baina akordioak lor genitzake, guztion interesak kontuan hartuta; eta, noski, bide horretan, komunikazioa ezinbestekoa izango da, eremu parte-hartzaileago bat sortzearekin batera.

Eta, beraz, haur eta gaztetxoek erabakiak hartzerakoan eta azken bururaino

eramateko orduan baliabideak eskainiz, bidelagun bihurtuko dira hezitzaileak.

Familiak

Udaleku motaren arabera, harreman handiagoa edo txikiagoa egongo da familiarekin; baina kontuan hartu behar dugu haur edo gazte horiek inguru bat dutela. Hori horrela izanik, interesgarria izan daiteke udalekuen aurretik udalekuetan zehar landuko diren balio eta erronken berri ematea familiari. Udaleku parte-hartzaileen nondik norakoak azaltzeko eta ulertzeko aukera izango genuke horrela. Modu horretan, familia ere konplize bilaka dezakegu prozesu zoragarri horretan.

Gainera, garrantzitsuak izango dira komunikazio eta harreman horiek, udalekuen antolatzaileen eta familien artean konfiantza-zubiak eraikitzeko. Egiten dugun hori eraginkorra izan dadin eta haurrek familiaren babesa ere badutela senti dezaten modu bakarra horixe izango baita.

Udalekuetan, familien parte-hartzea ere susta dezakegu. Haur eta gazteen proiektuen garapenean, ezinbesteko laguntzaile bihurtu daitezke familiak (udalekuetan jolasteko materiala lortzeko, udalekuetara gonbidatu eta jolasak erakusteko...). Baina sakonago landuko dugu gai hau komunitatearen atalean.

Eta, noski, udalekuen ostean gure filosofiak etxean ere jarraipena izan dezan, ezinbestekoa izango da familiarekin izandako harremana.

Komunitatea

Udaleku mota guztietan, komunitatea presente dago. Udaleku ibiltarrietan,

“Haur eta gaztetxoek erabakiak hartzerakoan eta azken bururaino eramateko orduan baliabideak eskainiz, bidelagun bihurtuko dira hezitzaileak.”

“Udalekuen ostean gure filosofiak etxean ere jarraipena izan dezan, ezinbestekoa izango da familiarekin izandako harremana.”

herri nahiz auzo ugari bisitatzen ditugu; baina udaleku itxi batean ere komunitate baten baitan garatzen ditugu udalekuak. Zer esan udaleku irekien kasuan! Norberaren herriko haurrak dira herri nahiz auzoan jostetan ari direnak.

Jendarte parte-hartzaile baten isla izango litzateke udalekua. Alde bate-tik, udalekua garatzen dugun komunitate horretako jendartearekin eta baliabideekin harremanetan gaudelako. Aukera bizia daukagu, beraz, harreman horien subjektu haur eta gazteak izateko. Herritarrekin kontu-kontari, dendariari jolasen bat egiteko material berrerabilgarria eskatuz, lotarako lekua lotuz, jolasera gonbidatuz, herriko plaza non dagoen galdetuz...

Bestetik, komunitatean aktiboki aritzeko aukera ezin hobea ematen dute udalekuek. Udaleku ibiltari batean, auzolanean parte har dezakegu baserri batean; udaleku itxietan, herritar baten ahotik ipuinak entzunez goza dezakegu, eta gureak konta ditzakegu, eta, udaleku irekietan, gure haur baten amonarekin gure herriko jolasak eza-gutuz elkarrekin jolas gaitezke. Aukerak askotarikoak dira! Baina ezin dugu

ahaztu komunitatearekin elkarlanean lortuko dugula benetako parte-hartzea sustatzea. Gainera, komunitatean ari diren gainerako eragileekin konplizitateak sortuz (kultur elkarteak, ludoteka, gazte-lekua...), pauso sendoak eman ditzakegu filosofia horren zabalpenean, eta haur eta gazteek parte hartzeko aukera duten esparru gehiagotara zabal dezakegu.

Udalekuak komunitate baten edo hainbaten inguruan antolatzen ditugu, eta horrek eskaintako aukerak aprobetxatzea dagokigu guri. Lau paretak albo batera utzita herrira, plazara, kalera ateratzeak biderkatu egingo ditu haur eta gazteek parte hartzeko dituzten aukerak.

“Komunitatean aktiboki aritzeko aukera ezin hobea ematen dute udalekuek.”

“Lau paretak albo batera utzita herrira, plazara, kalera ateratzeak biderkatu egingo ditu haur eta gazteek parte hartzeko dituzten aukerak.”



ARDATZ METODOLOGIKOAK

Udaleku parte-hartzaile bat antolatze-ko jarraitu beharreko metodologiaz ari-tuko gara datozen lerroetan. Orain arte erabili dugun metodologiak haur eta gazteen parte-hartzea mugatu egin du, eta, beraz, erabateko aldaketa behar dugu metodologikoki ere.

Metodologiari dagokionez planteatzen diren aldaketek, ordea, gure jarduna-ren osotasunaren erabateko kontzientzia hartzearekin uztartuta joan behar dute, ezinbestean. Aurretik azaldu denaren ildotik, gure jarrerarik txiki eta inkontzienteenetatik hasi behar dugu, gure barru-barrutik irteten diren hitzetatik, ekintzetatik... Horiekin ere era bateko edo besteko mugak jartzen baititugu. Beraz, azpimarratu baino ez dugu egingo metodologiaren aldaketa orotan eta hezitzaileen jarreretan kohe-rentziari eusteko ahalegina egin beharra dugula.

Antolaketa-eredua

Udaleku baten antolaketan, botere maila desberdina duten bi rol nagusi daude:

“Gure jarrerarik txiki eta inkontzienteenetatik hasi behar dugu.”

“Antolaketa horren oinarria desprogramazioa izango da.”

Begiralea edo hezitzailea:

heldua --> botereduna

Haur edo gaztea:

ez heldua --> botererik ez duena

Orain arte antolatzeko erabilitako eredu hierarkikoak bi rolen arteko botere-desoreka elikatu du. Boterea orekatuko duen eta haur eta gazteen parte-hartzea sustatuko duen antolaera horizontala behar dugu gure udalekua parte-hartzailea izan dadin.

Ez dago antolatzeko modu bati eta bakarrari jarraitu beharrik, ez dago antolatzeko eredu idealik; antolatzeko modu asko eta asko egon daitezke, denak ere desberdinak. Gure udalekuak parte-hartzaile egitea prozesu bat da, ez da egun batetik bestera bortizki egin behar den aldaketa bat; pausoz pauso joan behar dugu, eta talde osoarentzako ikasketa-prozesu gisa ulertu behar dugu. Prozesu hau dinamikoa izango da; etengabe ditugun hutsune eta kontraesanak identifikatuko ditugu, eta horiek konpontzeko ahalegina egingo dugu.

Antolaketa horren oinarria desprogramazioa izango da. Orain arte, haur eta gazteen iritzia kontuan izan gabe ibili gara haur eta gazteentzako programazioak eraikitzen. Haur eta gazteen parte-hartzearen bidezko udalekuak nahi baldin baditugu, hezitzaileok burutik kendu behar ditugu guk bakarrik gure

kabuz eraikitako programazioak. Beraz, desprogramaziotik edo programazioziorik gabeko egoera batetik abiatuko gara, eta taldean, guztiok batera, diseinatuko dugu programazioa.

Salto handia dago programaziotik desprogramaziora. Egiten dugun edozein aldaketa arduraz egin behar dugu, eta taldeari egokitu behar diogu. Aldaketak pausoz pauso eta mailaz maila egin behar ditugu, aldaketak nahi ez dugun ondoriorik izan ez dezan. Adibidez, hamar eguneko udaleku bat baldin badaukagu, ez daukagu zertan lehenengo urtean bertan hamar egunetako programazio guztia kendu; lehenengo urtean, soilik bizpahiru egun izan daitzke programatu gabekoak.

Desprogramazioaz gain, taldearen funtzionamendua eta arauak zehaztera eta ardurak geure gain hartzera ohituta gaude; aurretik aipatu bezala, hezitzaileon rola aldatu egingo da, eta taldeko beste kide bat izango gara; haur eta gazteen bidelagunak izango gara. Beraz, taldearen funtzionamendua taldean erabakiko dugu, eta, horrekin batera, ardurak ere taldean banatuko ditugu. Helburua ez da haur eta gazteek zer nahi duten galdetzea eta nahi duten hori ematea; helburua haur eta gazteek nahi duten hori lortzeko antolatzea da. Ezin dugu ahaztu ahalduntze-prozesu batez ari garela; haur eta gazteek zer nahi duten, zer interes duten jakin behar dute, eta, hori lortzeko, eraikitzeko, bidea egin behar dute. Gu bide horretako bidelagunak izango gara, eta behar dituzten tresnak emango dizkiegu.

Elkarbizitza-ohiturak ere denon artean zehazteak garrantzi handia du. Arauak denok batera adostekak kideen arteko partaidetza modu parekidean gau-

zatzea izango du helburu. Gainera, hezitzaileok bidelagunak izango bagara, ezingo dugu guk bete orain arteko epaile-rola. Elkarbizitza-ohiturak taldeak berak zehaztu baditu, taldea bera izango da taldearen epaile.

Metodologia

Biltzarra

Biltzarra izango da aurretik aipatutako guztia erabakitzeko eta batez ere guztion ahotsa entzun eta kontuan izateko tresna. Edozein erabaki hartzeko tresna izango da, eta, horregatik taldeko gutako bakoitzari ahotsa emango dion espazioa izan behar du.

Biltzarrak taldekide guztiak erabakitzeko eskubidearen jabe izatea ahalbidetzen du; berorren bidez, haur eta gazteei adierazteko esparru bat eskaintzen zaie, eta hainbat ezagutza eta gaitasun barneratzen dituzte. Biltzarraren bidez, taldeko kide den norbanako bat taldeko arduradun bihurtuko da.

Gure ekimenak parte-hartzaileak izan daitezten tresna garrantzitsua da biltzarra; izan ere, denok gara ekimenaren protagonistak, eta biltzarrak hori horrela izan dadin bermatu behar du. Biltzarretan, hainbat gauzaz hitz egingo dugu: programazioa, taldearen elkarbizitza ohiturak... Bestalde, gatazkak kudeatzeko eremua ere izan daiten biltzarra.

Lehenengo biltzarra berezia izango da. Biltzar horretan, biltzarra zer den eta

“Arauak denok batera adostekak kideen arteko partaidetza modu parekidean gauzatzea izango du helburu.”

biltzarrak zertarako izango diren azaldu beharko dugu; ondo azaldu behar dugu biltzarra denon tresna dela eta denok daukagula biltzarrerako deia egiteko edo biltzarra proposatzeko aukera. Horrekin batera, biltzarreko arauak adostu beharko ditugu denon artean: adibidez, hitza nola eskatuko den, eserita egon behar dugula, ezin dela inor iraindu, ezin dela hitz egin besteak hizketan ari diren bitartean, besteen hitza errespetatu behar dugula, biltzarrean parte hartzen ez duenak isilik egon behar duela edo apalki hitz egin behar duela...

Hasiera batean edo gutxienez lehenengo biltzarrean, hezitzaileok izango gara biltzarraren deitzaileak eta dinamizatzaileak. Izan ere, kontuan izan behar dugu haur eta gazteentzako berria den metodologia bat ari garela abian jartzen, metodologia berrira egokitzeko denbora behar dutela eta guk ere denbora behar dugula. Beraz, normala da hasieran biltzarrak ondo ez funtzionatzea, ikasketa-prozesuaren parte dela esan genezake. Eginaz ikasiko dugu, eta eginaz hasiko da biltzarra ondo funtzionatzen.

Nola eramango dugu aurrera biltzar bat? Galderari erantzuna emanez, koaderno honetako eranskinetan duzue **Kukumixok (Soraluze) 2014ko udaleku irekietarako sortutako bitartekoa**. Biltzar bat aurrera eramateko kontuan izan beharreko pauso batzuk ematea da bitarteko honen helburua, baina horrek ez du esan nahi hau denik biltzarra egiteko modu bakarra, bako-

tzak bere errealitateari egokitzeko zaion modua bilatu behar baitu.

Jolasa eta elkarrizketa

Parte-hartzea sustatzeko bi baliabide mota ditugula esan genezake: elkarrizketa eta jolasa. Bai jolasak eta bai elkarrizketak prozesu parte-hartzaileak aurrera eramaten lagunduko digute. Izan ere, garapen soziala eta sormena sustatzen dituzte, adierazteko aukerak handitzen dituzte, eta inguru seguru eta atsegin bat bermatzen dute.

Biltzarra izango da elkarrizketa bermatuko duen espazioa. Elkarrizketa haur nahiz gazteen eta helduen arteko parte-hartzea bultzatzen duen hitzen bidezko jolasa da. Elkarrizketaren bidez, eztabaida eta harremana bultzatzen dira, guztion inklusioa sustatuz.

Horrez gain, jolasa izango da gure jardunaren oinarria; haur eta gazteen



“Elkarrizketak eta jolasak inguru seguru eta atsegin bat bermatzen dute.”

ahalduntze-prozesurako ezinbesteko tresna dugu jolasa, gizakion garapen-prozesuan jolasak garrantzi berezia baitu. Plazerezko ekintza da jolasa, eta gauzak aurkitzen eta esperimintatzen laguntzen du. Ekintza askea izateaz gain, tresna egokia da ezagutzak oharkabean jasotzeko. Jolasteko moduren bidez, identitatea eraikitzen da, eta sormena sustatzen da.

Jolasa eta jolasaren formak askotarikoak direnez, material eta objektu guztiak eralda daitezke jolasean. Gure parte-hartze prozesuetan, oso lagungarria eta ahaztu ezin dugun tresna izango da; biltzarrak dinamiko egiteko, gatazkak kudeatzeko, botere-harremanak orekatzeko, hainbat balio edo gai lantzeko...

Espazioaren antolaketa

Espazioa ez da gizarte-antolaketa desberdin baten isla soilik; espazioaren erabilerak desberdintasunak errepikatzen eta betikitzen ditu. Horrez gain, identitatearen eraikuntzan garrantzia duen elementua da espazioa. Beraz, espazioak berorren erabilera eta espazio horretan egiten den jarduna baldintzatzen dituela esan genezake.

Gure helburua botere-harremanak orekatzea eta haur eta gazteak ahalduntzea baldin bada, espazioak horretarako egokia izan beharko du. Horregatik, haur eta gazteen parte-hartzean, garrantzitsua da espazioaren gainean arreta jartzea eta berori lantzea, gure jardun eta metodologiarekin koherentziari eutsi nahi badiogu. Adibidez, kontuz ibili behar dugu botere-harremanak sortuta dituzten espazioak erabiltzen ditugunean; eskolak erabiltzean, esate baterako. Oso errotuta ditugu espazio horietan izaten diren harremanak, eta,

harreman-eredu horiek errepikatu nahi ez baditugu, ezinbesteko izango zaigu espazio horiek moldatzea edo berorientatik irtetea.

Darabilgun espazioan gertatzen diren elkarrekintzak eta interakzioak boterea orekatzeko eta botere-harremanak gainditzeko aukera bihur daitezke. Horrez gain, espazio desberdinetan egoiteak edo ez egoiteak eragina izango du izaeran eta garapen pertsonalean.

Udaleku parte-hartzaile bat antolatzerako orduan, haur eta gazteek parte hartzeko aukera eta espazioak sortu behar ditugu. Espazioa guztion parte-hartzerako egokia izatea ziurtatu behar dugu. Baina zer da egokia izatea? Espazioaren antolaketak harreman hierarkikoak bultzatzea saihestu behar du, eta komunikazioa modu egokian gauza dadin bermatu behar du. Espazioaren antolaketak malgua izan behar du, malgua eta moldagarria, denontzat egokia izan behar baitu espazioak. Espazioak sortzen diren eta sor daitezkeen beharrak ase behar ditu. Horregatik, parte-hartzea bultzatzeko eta haur guztien beharrak asetzeko, oso garrantzitsua da espazioak malgutasunez antolatzeko, behinik behin aukerak ez mugatzeko.

“Espazioa ez da gizarte-antolaketa desberdin baten isla soilik; espazioaren erabilerak desberdintasunak errepikatzen eta betikitzen ditu.”

“Parte hartzeko espazioak sortu behar ditugu.”

EBALUAZIOA

Eguneroko errealitateak zuzenean baldintzatzen ditu pertsonon jarduna eta ikusmoldea. Gainera, errealitate hori balio indibidualisten gainean eraikitzen dela kontuan izanda, soilik norberaren interes partikularren arabera jokatzeko joera izan ohi dugu, inkontzienteki bada ere. Eta udalekua eta antzeko ekimenak ez daude jokamolde horretatik salbu. Talde baten parte garen unean, beraz, ez gaude ohituta talde izaera lantzeak eta era kolektiboan pentsatzeak ekarriko ligukeen ikusmolde-aldaketaren eta aukeren potentzialtasunaz jabetzera. Aurreiritziak gailentzen dira gure pentsamoldean, eta ariketa enpatikoen gabeziak gatazka-iturri bilakatzen dira. Esan dezakegu, beraz, talde baten dinamika positibo eta osasuntsuaren bidean garrantzitsua dela talde-lanaren perspektiba izatea eta elkar zaintzea oinarri izango duten jokamoldeak gailentzea, norberaren izaera pertsonalari uko egin gabe.

Bide horretan, garrantzi berezia hartzen du taldeak bere buruaren ebaluazioa egiteko gaitasuna lantzeak eta taldeko kide bakoitzak horretarako aurretiazko joera izateak. Ebaluazioa, beraz, taldearen garapenean zutabe dela

esan dezakegu, autokritika eraikitzaile-rako esparru dela ulertuta.

Hausnarketa hau udalekuen esparrura ekarriz, talde bi bereiz ditzakegu ebaluazioa egiteko esparru gisa. Batetik, parte-hartzaile guztiek osatzen duten esparrua legoke, hezitzaile eta gazteak biltzen dituen, adin-desberdintasun nabariak dituen esparrua da. Bestetik, hezitzaile taldea dago, talde osoaren azpitalde gisa uler daitekeena; izaeraren aldetik, aisialdi- edo hezkuntza-proiektuaren perspektiba orokorra izanda dinamizazioa bere gain hartzen duen taldea da gehienetan. Udaleku itxietan eta horrelako ekimenetan, beti egin ohi da hezitzaileen eguneroko batzarra, udalekuaren garapena eta antolaketa bermatze aldera. Udaleku irekietan, aisialdiko talde bakoitzak maiztasun jakin batez egin ohi du batzar hori. Nabariak dira aipatutako bi talde-eredu horiek dituzten desberdintasunak; besteak beste, aisialdi proiektuaren ikuspegiari, lanerako erritmoari edota beharrian metodologikoei dagozkien desberdintasunak dira, batzuk aipatzearen.

Atal honetan, ordea, talde osoaren ebaluazioa landuko da, gazte eta hezitzaileek osatutako talde osoarena, eta berorrek izan beharreko ezaugarriez jardungo da, betiere hezitzaileen ebaluazio-batzarrari erreferentzia zuzena eginez. Ebaluazioaren une hau ulerti daiteke aurreko atalean biltzar gisa de-

“Ebaluazioa taldearen garapenaren zutabe da, autokritika eraikitzaile-rako esparrua.”

finitu dugun espazioaren erabilera espezifikoko gisa ere.

Ebaluazioaren helburuak

Udalekuetan eta horrelako ekimenetan, talde osoak osa dezakeen ebaluazioari esleia diezazkiokegun helbururik garrantzitsuenak ondoren adierazten direnak izan daitezke. Hori esanez, ez dugu esan nahi aipatzen diren helburuak betetzeko dugun bitarteko bakarra ebaluazioaren unea denik, inondik ere ez. Ez eta ebaluazioa egiten den bakoitzean helburu guztiak nahitaez bete behar direnik ere.

• Ebaluazioaren sinesgarritasuna.

Helburu hau beste guztien zorua dela esan dezakegu. Garrantzitsua da taldekideek ebaluazioa egitearen garrantzian edo benetako erabilgarritasunean benetan sinestea. Oinarri-oinarrizkoa da bakoitzak bere iritzia emateko duen espazioa dela barneratzea eta iritzi hori besteek benetan kontuan hartuko dutela jabetzea.

• Udalekuaren ebaluazioa bermatzea.

Udalekua, programazioaren ikuspegitik, ekintza multzo batez osatua izango da, eta ekimenaren beraren parte diren haurren, gazteen eta hezitzaileen arteko harremanak ekintza horien guztien zoru dira. Ebaluazioak ekintza eta harreman horien egokitasunaz, nolakotasunaz eta daramaten norabideaz jabetzeko balio behar digu.

• Hitz egiteko kultura sustatzea. Arestian aipatutako jokamolde indibidualistei kontrapisua egiteko gune bat ere bada ebaluazioa. Norberaren usteak besteekin gurutzatuz eta hitzaren birtartez taldean sortzen diren gatazkak, dudak eta erabakiak ikuspegi kolektibo batetik lantzeko bitartekoa da. Bide ho-

rretan, garrantzi berezia hartzen dute botere-harremanak orekatzeak, ariketa enpatikoak egiteak eta elkar ulertzen ikasteak.

• Autokritika egitea. Taldeak dituen edota taldeko kideek dituzten indarguneak azpimarratzeko eta ahuleziak edo hutsuneak kolektiboki identifikatzeko gunea da. Taldearen autokritika osasuntsua egiten ikasteaz ari gara, alegia, aurrera begira talde-dinamika hobetuko duten ekimenak mahaigainean jartzeko.

• Konfiantzako eremua sortzea. Aurreko helburuak modurik leunenean erdietsi ahal izateko, beharrezkoa da taldeko konfiantza lantzea eta ebaluazioaren gunea askatasunez iritzia emateko esparru gisa eraikitzea. Horretarako, ezinbestekoa da alderdi metodologikoa egoki lantzea, eta taldekide bakoitza gustura sentituko den gune bat eraikitzea da helburua.

Ebaluazioaren edukiak

Ebaluazioa egiterakoan, gai askori buruz hitz egin daiteke, eta, udalekuaren izaeraren arabera ere, bakoitzak bere ñabardurak izan ditzake. Hori kontuan izanik, ebaluazioaren oinarri-zko puntuez arituko gara atal honetan.



Aipatzen den edozein gairen inguruan balorazio bat egiterakoan, haur eta gazteek edo hezitzaileek izan dezaketen ikuspegia desberdina izango da, betiere, bakoitzak dituen helburu edo itxaropenei loturik dagoelako bakoitzaren iritzia.

- **Egindako ekintzen ebaluazioa.** Programan zehaztuta edo beste moduen batera aurrera eraman diren ekintzen balorazioa egiteaz ari gara.

- **Talde-dinamikaren ebaluazioa.** Puntu honetan, taldekideen arteko harremanen garapenez eta taldearen funtzionamenduaz iritzia emateko parada izango da. Harremanei dagokienez, taldearen kohesioaz, adiskidetasunen garapenez, besteekiko jarrerez edota errespetuaz eta horrelako kontuez hitz egingo da. Taldearen funtzionamenduari dagokionez, berriz, parte-hartzeaz, ekintzen dinamizazioaz, lanen banaketaz, azpiegituraz eta abarrez hitz egingo da.

- **Norberaren buruaren ebaluazioa.** Talde osasuntsu bat izateko eta taldeko bizitza posible egiteko, garrantzitsua da orekari eustea taldekide bakoitzaren egoera emozionalari dagokionez; eta, bide horretan, ariketa enpatikoak egiteak, bakoitzaren beharrezkoak taldeari transmititzeak eta horrelako ariketek

beren lekua izan behar dute.

Ebaluazioaren metodologia

Arestian aipatu bezala, izaera, adin, ibilbide eta udalekuarekiko itxaropen asko biltzen dituen talde batez ari gara, haur eta gazteen udalekuez ari garenean. Beraz, aurreko puntuan aipatutako helburuak bete eta esandako gaietz iritzia eman ahal izateko espazioa sortzeko bidean, metodologiak garrantzi berezia hartzen du. Ebaluazioari buruz hitz egiten dugunean, ihes egin behar dugu bilera baten irudikapenetik, eta taldekide guztiak eroso sentitzeko moduak bilatu behar dira, ebaluazioak bere bide egokia egitea nahi bada. Hurrengo lerroetan, ebaluazioa egiteko metodoek izan beharreko oinarriko ezaugarri batzuk aipatuko dira.

- **Metodologia askotarikoa.** Ebaluazioa egiten den bakoitzean modu desberdina erabiltzeak asko laguntzen du motibazioan. Irudimena libre uztea eta jolas nahiz dinamika desberdinak asmatzea garrantzitsua da, ebaluazioaren puntuez hitz egiteko metodo gisa erabiltzeko. Egunak, mementoak nahiz kideen neke edo egoera emozionalak irakurtzea eta horiek eskatzen dutenaren arabera malguak izatea ere garrantzitsua da.



• **Memento egokia.** Eguneko memento egoki bat bilatzea garrantzitsua da, taldea adi eta gogotsu dagoela bermatzeko. Beraz, nekea, gosea eta horrelako beharrianak aseta izatea ondo datorkio taldeari. Garrantzitsua da normalean berandu edo egunaren amaieran egitea saihestea ere. Udaleku itxi batean, adibidez, mementorik egokiek afalaurrea edo, asko jota, afalondoko eta gaubeilaren aurreko garaia izan daitezke.

• **Botere-harremanen oreka bilatzea.** Iritzia emateko guneak ere ez daude horretatik salbu. Metodologiak, beraz, taldekideen protagonismoak orekatzen eta denen iritziak mahai gainean jartzen lagundu behar du. Kontuan izan behar da ahozko nahiz idatzizko metodoak erabiltzeko aukera, bai eta iritzia anonimoki ematekoa ere.

• **Ebaluazio-edukien errepikatzea.** Ebaluazioari helburu batzuk jarri dizkiogu, eta iritzia emateko edo hitz egiteko gai batzuk ere planteatu dira. Zerrenda horiek ez dute esan nahi, ordea, ebaluazio-jardun bakoitzak helburu guztiak erantzun behar dienik edo ebaluazio guztietan gai guztiak landu behar direnik. Ezin dugu ulertu batzar bateko gaitzerrenda itxi bat edukiko bagenu bezala. Ekimenaren garapenari erreparatuz malguak izatea garrantzitsua da, eta egun batzuetan gai batzuez ez hitz egiteko aukerak edo beste egun batzuetan ariketa edo dinamika monografikoak egitekoak landu behar dira. Bide horretan, egunean gertatutako gauza zehatz batzuk ebaluatzeko astia har dezakegu batzuetan, eta, beste batzuetan, udaleku osoan zehar gai bat nola garatu den landu dezakegu (adibidez norberaren motibazioaren edo zirraren gaia).

Bi ebaluazioen arteko oreka

Sarreran aipatu dugunez, bi ebaluazio mota edukiko genituzke udaleku parte-hartzaile batean: talde osoarena eta hezitzaile taldearena. Garrantzitsua da bi ebaluazioek bete beharreko funtzioaz hausnartzea, bai eta ebaluazio-esparru bakoitzarekin lortu nahi dena aurretik zehaztuta edukitzea ere; horrela, ebaluazio-esparru bakoitzean hartzen diren erabakiek edo ematen diren iritziek garrantzia izan dezaten, baina elkar zapal ez dezaten. Zehatzago izateko, talde osoan egiten den ebaluaziotik ateratako ondorioak edo erabakiak hezitzaile taldeak atzera botatzeak ondorio negatiboak izan ditzake talde-dinamikari begira, eta talde osoaren eta batez ere haur eta gazteen ahalduntze-prozesua oztopatuko luke horrek; gainera, ebaluazioaren sinesgarritasuna ere galduko genuke.

Haur eta gazteen adinaren eta aisialdiko talde bakoitzaren ikuspegiaren arabera, argi dago: talde osoaren ebaluazioak izaera bat edo beste hartuko du, edota edukien sakontasun maila desberdina eskatuko du bakoitzak. Ebaluazioen diseinu hori hobetzen joango da bakoitzaren esperientziaren bidez, ziur, eta, posible den neurrian, garrantzitsua litzateke hezitzaile taldearen ebaluazio-batzarrek talde osoari gero eta leku gehiago uzteko bidean pausoak ematea. Finean, aisialdiko proiektu bakoitzak bere oreka bilatzean datza erronka nagusia.

“Garrantzitsua da ebaluazio-esparru bakoitzarekin lortu nahi dena aurretik zehaztuta edukitzea.”

EKINTZA—PROPOSAMENAK

Teoria beretik abiatuta, praktikak askotarikoak izan daitezke. Eta horixe da aberasgarriena, errealistena izateaz gai. Udaleku parte-hartzaileak egiteko modu eta intentsitate asko daude; eta ezinbestekoa izango da garaiari, taldeari nahiz lekuari egokitzea.

Baina badakigu posible dela, han eta hemen egin baita. Hona hemen udaleku mota bakoitzaren adibide txiki bat:



Udaleku irekiak (Soraluzeko Kukumixorekin)

Soraluze 4000 biztanle inguru dituen herria da, Gipuzkoako ipar-mendebaldean kokatua. 2008an sortu zen Kukumixo Aisialdi Taldea, Pil Pilean Euskaldunon Elkartearen laguntzarekin, eta, orduetik, pausoak ematen ari dira pixkana haur eta gazteen aisialdian, balioetan heziz eta udaleku parte-hartzaileak antolatuz, besteak beste.

2009tik, udaleku irekiak antolatzen dituzte herrian; baina duela bi urte udaleku parte-hartzaileagoak egiteko erronkari heldu zioten, eta hausnarke-ta eta ibilbide interesgarria bizi izan dute. Hona hemen udaleku irekietarako

hainbat gako.

Prestaketa

- Herriko hezkuntza-eragileekin harremanetan jartzen dira, haurren beharren eta metodologiaren inguruan hitz egiteko eta bataren eta bestearen proposamenak elkarrekin partekatzeko.

- Hezitzaileen lantaldean, udalekuetan landuko diren balioak adosten dira, eta nola landuko diren erabakitzen da.

- Haurren parte-hartzea lantaldeak modu berean jorra dezan, prestakuntza-saioak egiten dituzte elkarrekin, hausnartu eta estrategiak finkatzeko.

- Udalekuen prestaketan, denbora eskaintzen zaie haurren parte-hartzea sustatzeko moduz pentsatzeari eta adosteari.

- Biltzarra izango denez hurrekin erabiliko den tresna garrantzitsuenetakoa, nola landu eta zer estrategia erabili adosten da.

- Programazioa adosten hastean, egun ugaritako programazio hutsik gelditzen da. Zer egingo duten ez badakite ere, egingo dutena nola adostuko duten

erabakitzen dute.

- Programazioaren atalean, kontuan izaten dira aurreko urteko balorazioa eta hurrek egin zituzten proposamenak (idatzita edukitzen baitituzte).

- Senideekin bilera egiten da, udalekuen planteamendua esplikatzeko, harremanak lantzeko eta ekarpenak jasotzeko helburuarekin.

Ekintzen garapena

- Kalea da jolaserako gune nagusia. Lau paretetik atera, eta kalean aritzen dira udaleku irekietan.

- Kalean arituz, herritarrekin harreman etengabea ari dira udalekuetako kideak; jolaserataz herritarrak, txabolak eraikitzen lagunduz senideak, txabolatarako kutzak herriko saltokietan batuz, herritarrak haurrak zainduz eta alderantziz...

- Talde txikian antolatzen dira (10 haur,

hezitzaile 1), eta adin bertsuko hurrekin osatzen dituzte talde txikiak.

- Hurrekin biltzar parekideak eginez, udalekuetan herriko zein gune bilakatuak duten beraien txoko erabakitzen dute.

- Toki horretan, taldearen txabola edo gunea sortzen eta apaintzen dute elkarrekin.

- Talde txikian erabakitzen dituzte taldeko elkarbizitza-arauak.

- Programazioaren baitan, irteera bereziak zehazten dira (irteerak gaua pasatzera, mendira, igerilekura, erreka edo hondartzetara...); baina, gainerako egunetan, elkarrekin nahasita aritzen dira talde txikiak (hainbat adinetakoak) ekintza ugarritan.

- Ekintza horietako hainbatetan, biltzarra egiten dute taldeetako kideek zer egin nahi duten erabakitzeko. Biltzar hori kasu



batzuetan egunean bertan egiten da; eta, beraz, orduantxe lortu behar dituzte baliabideak eta lekua. Edota egun batzuk lehenago adosten dute, eta baliabideak lortzeko lanak banatzen dituzte.

- Herriko gune zehatz batzuetan askotariko materiala uzten da, beharrezkoa denean taldeek gune horietara jo dezaten.

- Udalekuek bi aste irauten dute (astelehenetik ostiralera); egun gehientzuenak goizez badira ere, hainbatetan egun osoko irteerak egiten dituzte, eta gau bat etxetik kanpo pasatzen dute (bi taldetan: 4-7 urte eta 8-12 urte), herriko zenbait gunetan gaua elkarrekin igaroz.

- Udalekuetan egindako biltzarretan, azken eguneko "kaleak gure eginez" ekimena antolatzen aritzen dira: herrian zehar sortu nahi dituzten txoko eta ekimenak definitzen, aukeratzen eta antolatzen dituzte. Haur bakoitzak ekimen bat antolatzeko ardura hartzen du, eta, azken aurreko egunean, antolatzaille taldeak sortzen dira gunez gune, bidelagun batekin. Horrela, hurrengo egunerako ekimena elkarrekin adosten eta lotzen dute. Hurrengo egunean, materiala lotzen dute, beraien gunea prestatzen dute, eta gune horri buruzko azalpenak eta aurkezpenak

egiten dituzte. Ondoren, egunean bertan, gunez gune ibiltzen dira haurrak herrian zehar, nahi duten horretan eta nahi dutenarekin parte hartuz, txikiak nagusienekin eta alderantziz.

- Aurtengoan, gainera, "Amama Mersé" pertsonaia sortu dute, balioen lanketan laguntzeko asmoz. Zuzenean, gutun bidez eta hezitzaileen nahiz umeen aipamenaren bitartez landu da pertsonaia, bai eta balioak ere.

Ebaluazioa

- Eguneroko biltzarra ekimen eta harremanen inguruan hitz egiteko aprobeztatzen da, taldeari egokitutako metodologiaren bitartez.

- Azken egunean, taldeko biltzarrak egiten dituzte udalekuen balorazio orokorra egiteko; taldez talde, metodologia egokiena aukeratzen du taldeko hezitzaileak.

- Horrez gain, hezitzaileen arteko egunez eguneko balorazioak eta udalekuen erdialdean egiten den "harremanen balorazioa" daude. Bai eta azken balorazio orokorra ere, noski.

- Gainera, gurasoen balorazioa jasotzeko baliabideak ere ematen dira, gutun bidez galderatxo erraz batzuei erantzuteko proposatuz.

- Ebaluazioa herriko hezkuntza-batzordean banatzen da, uda ostean.





Udaleku ibiltariak (Lekeitioko Karkabiarekin)

Lekeitio Lea-Artibai eskualdeko kostaldean kokatzen da, Bizkaian, eta 7000 biztanle inguru ditu. Gure proiektuaren nondik norakoa kokatzeko, azpimarratu beharra dago Lekeitiotik eta Lekittorra begirako proiektua dela gurea. Hau da, aisialdiko ekimenetan parte hartzen duten gazteak herrikoak dira edota, inguruko herrietakoak badira ere, Lekeitioko ikastetxeetan ikasten dute.

Lekittoko hizkeran, karkabak eraikinen arteko leku ezkutuak dira; estaliak izan ohi dira, zikinak eta beharrezkoak ez omen direnak. Gutako bakoitzak ere karkabak ditugu, ordea, barrenean. Zabaldu beharreko alde ezkutuak dira, eta egunero inguratzen gaituen errealitateak txoko horiei ez begiratzeko esaten digu. Barreneko hori ateratzeko sortu genuen Karkabia 2009an. Iritzi kritikoa izatea, erronkei aurre egitea, bidean sormena hauspotzea, justizia ezaren aurrean asaldatzea, norberaren barruko beldur, lotsa eta mugei aurre egitea, zirrarak askatzen ikastea, askeago egiten gaituzten balioen transmisioa, daramagun bizimoduak ezarri dizkigun mugak gaingaitzea... ez dira ezarritako eremuetan lantzen diren kontuak. Ideia eta hausnarketa horiek praktikan lantzeko sortutako proiektua

da. Ideia horren baitan, proiektuaren zutabeetako bat dugu aisialdiko taldea.

2009az geroztik, beraz, 13 urtetik aurrerako gazteentzat, aisialdirako esparru bat eraiki dugu pausoz pauso, eta urtean bi ekintza eramaten ditugu aurrera. Gaur, udan egiten den udaleku ibiltariak eta abenduan egiten den neguleku finkoaz hitz egin dezakegu.

Aisialdiko taldearen helburu eta lanmoldeei erreparatuz gero, hezitzaileen eta gazteen arteko harremanari hasiera-hasieratik eman diogun garrantzia agerikoa da. Batetik talde-laneko horizontaltasunak eta bestetik gazte bakoitzaren ahalduzko-prozesuak duten garrantzia beti egon dira fokopean aisialdiko taldearen jardunean. Ohiko gaia izan dugu hori ekimenetan egunez egun egiten ziren balorazio eta batzarretan nahiz urtean zehar egiten zirenetan.

Bide horretan, pertsonon artean sortzen diren botere-harremanak eta beraien inguruko etengabeko hausnarketak hezitzaileen rolaren nolakotasuna etengabe zalantzan jartzera eraman izan gaituzte. Hala, 2014ko udalekuen dinamikaren barruan, hezitzaileen eta gazteen arteko rol-banaketa markatua gure bidean oztopo zela ondorioztatu genuen, gure ustez hezitzaile funtzioaren esleipenarekin botere-harremanak areagotu baino ez baitziren egiten; ordutik aurrera ekimenotan denok gazte gisa parte hartuko genuela erabaki zen. Dударik gabe, horrek antolakuntzan nahiz ikusmoldeetan dakarren aldaketan murgilduta gabiltza gaur-gaurkoz. Era berean, kide denok proiektu honetan hartzaile eta parte-hartzaile aktibo ere bagara, askotan adin-desberdintasunak asko marka-

tzen duen arren; eta bakoitzak bere esperientziatik eta motibaziotik egiten duen ekarpenak garrantzi berezia hartzen du.

Guztion artean eraikitzen da ekimen bakoitza, beraz. "Geuk eta geuretzat" goiburua hartuta, bakoitzaren egozenezinei bide ematea eta ekimena eskuetan hartzeko esparruak sortzea da helburua. Jarrera indibidualistetatik urrunduz eta erabakiak denon arteko biltzarretan hartuz, biltzar bidezko talde-izaera kolektiboari garrantzia ematen diogu, eta, hezkidetzan oinarritutako jarrerak lantzearekin batera, ama-lurra errespetatzen ikasten dugu.

Prestaketa

Gure filosofiari jarraiki eta ekintzen programa udalekuan bertan izango garen partaide guztion artean eraikitzea helburu hartuta, esan dezakegu gure udalekua ez dela soilik 10 egunekoa. Udalekuak uztailean egin arren, maiatzetik gazteekin biltzen hasten gara. Herrian zehar egiten ditugun jolas eta ekimenen bidez, udalekua parte-hartzaile guztion artean antolatzen dugu, eta aisialdiko talde garen heinean ditugun helburuak lantzeko bitarteko ere bihurtzen ditugu aurreko asteetako dinamika horiek.

Hasteko, maiatzerako lan batzuk aurreratuta izaten ditugu. Lan horiek urtean zehar modu iraunkorrean aisialdiko proiektuari jarraipena egiten diogun kideen artean eramaten dugu aurrera. Hauek lirateke taldetxo horrek aurretik egiten dituen lanak:

- Udalekuan egun bakoitzean egingo den ibilbidea diseinatzea eta aurrez ibilbide horiek egitea. Horrez gain, lotarako lekuak zehaztea eta baimen-eskaerak egitea.

- Udalekua ibiltaria dela kontuan harturik, igaroko garen herrietako errealitatea ezagutzeko aukeren zerrenda egitea.

- Udaleku ibiltariaren komunikazio-plangintza egitea eta ekimenaren propaganda eta zabalpenerako bitartekoak jartzea, bai eta gazteek izena emateko zerrenden jarraipena egitea ere.

Maiatzean eta ekainean egiten ditugun ekimen puntualak bi astean behin izaten dira gutxi gorabehera. Arratsaldeetan elkartzeaz eta izaera ludikoa duten jolasak egiteaz gain, hainbat helburu lantzeko dinamikak burutzen ditugu. Maiatzean, izena emateko zerrendak irekita izaten dira oraindik, baina ekainaren hasierarako osatuta izaten dugu parte-hartzaileen zerrenda.

- Maiatzean, motorrak berotzen hasiteko ekimenak egiten ditugu. Kontuan izanda udalekuetan parte hartuko duten gazteen behin betiko zerrenda oraindik osatu gabe egoten dela, normalean aurreko urteetan udalekuetan ibili diren gazteak biltzen dira ekimen horietan. Ekimen horien helburuak hauek izaten dira:

- Udalekuari jarri nahi dizkiogun helburuez eta gutako bakoitzak ditugun itxaropenez aritzen gara. Motibazio-ariketatzat uler dezakegu.

- Egin nahi genituzkeen ekintzak zerrendatzeko, ideia-zaparradabat egiten dugu.

- Ekainean, berriz, aurretiazko lanketa-aren bigarren fasean sartzen gara. Jada udalekura joango garen partaideen zerrenda zehaztuta izaten dugu, eta denok parte har dezagun saiatzen gara.

- Elkar ezagutzeko, hainbat jolas egiten ditugu.
- Ibilbidea zein den ezagutzeko, jolasen bat egiten dugu.
- Udalekuan erabiltzen dugun antolakuntza-eredua lantzen dugu, eta programa eraikitzen dugu denon artean.
- Talde-izaera kolektiboarekin lotutako balioen lanketa egiteaz gain, denon artean udalekuetan izango ditugun taldeko arauak zehazten ditugu.

Udalekuaren antolaketa-eredua eta programaren eraikuntza

Udalekuetan bertan antolatzeko ereduari dagokionez, udalekuak zenbat egun hartzen dituen, hainbat taldetxotan banatzen gara, 10 taldetan normalean. Taldeak egiteko irizpideak partehartzaile kopuruaren urtero arabera aldatzen diren arren, talde bakoitzean 3-4 gazte izan daitezten bermatzen da;

adin desberdinetakoak izateaz gain, udalekuan esperientzia dutenak eta berriak nahasi egiten ditugu talde horietan. Taldetxo horien egitekoa bikoi-tza da.

- Batetik, talde bakoitzak zoriz egokitu zaion udalekuko eguneko programa prestatzen du aurretiaz, eta eguna dinamizatzen du udalekuan bertan.
- Bestetik, beste egun batean, otorduen ardurak hartu beharko dute udalekuan zehar, eta talde horren ardurak izango da gosaria, bazkaria eta afaria prestatzea.

Ardurak, beraz, txandakakoak dira, hau da, taldetxo bati egun batean ekintzak dinamizatzea dagokio, eta beste batean, berriz, otorduak prestatzea. Hori guztia antolatzeko, ekain osoa erabiltzen da; aurretik botatako ideia-zaparrada aprobetxatzen da ideiak hartzeko, eta, garrantzitsuena, irudimenari bide ematen diogu. Ekainean, beraz, denok batzeko egiten ditugun dina-



mikez gain, taldetxo bakoitzak denbora hartu behar izaten du ekintzak pentsatzeko eta proposatzeko.

Azpiegituren ikuspegitik, furgoneta batean eramaten dira gauzak herri batetik bestera, hala nola mailetak, jolas-materiala, sukaldeko materiala eta janariak. Egun bakoitzean, gidatzeko ardura txandakatu egiten da gidabaimena duten parte-hartzaileen artean, eta ardura hori ahalik eta modurik orekatuenean banatzen saiatzen gara. Bestelako ardurak ere badira, adibidez, egun bakoitzean lotarako lekuetako eta herrietako kontaktuekin harremanetan jartzea, ibilbideetan gidari izatea, edo janaria badela bermatzea. Ardura horiei dagokienez, bada jendea udalekuak hasi aurretik eta antolakuntzan lanean aritu dena eta egun bakoitzean zer egin behar den modu natural batean ezagutzen duena. Baina, berez, talde txiki batek du egun bakoitzeko gauza horien ardura, eta talde txiki horren ekimen-gaitasuna ez oztokatzen saiatzen gara. Horregatik, ardura bakoitzean ez dugu pertsona zehatz bat ofizialki izendatzen, delegazionismoak saihesteko.

Ebaluazioa

Aurrez azaldutako antolakuntza-ere-

dua dela udalekuen bizkarrezurra esan dezakegu; baina benetako muina guztia koordinatzeko iluntzero egiten den biltzarra da, horixe baita elkargune nagusia. Biltzar horretan, egunean zehar egindakoa balioesten da, eta egunez egun autokritika egitea da, hortik ikastea eta gure taldea hobetzea da helburua. Horretarako, lau puntu nagusitan oinarritzen gara.

- Ibilbidearen balorazioa
- Ekintzen balorazioa
- Taldeko giroaren, talde-izaeraren eta funtzionamenduaren balorazioa.
- Azkenik, norberaren buruaren inguruan hausnartzeko tartetxoa hartzen dugu.
- Horrez gain, hurrengo egunaren errepaso ere egiten dugu, eta hurrengo egunera begira bakoitzak izango dituen ardurak gogoratzen ditugu.

Egunez egun iluntzetan egunari buruz egiten den balorazioaz gain, beste balorazio bat egiten dugu udalekuaren azken egunean, goiz osoan. Oro har udalekuari erreparatuta ondo egindakoak goraipatzeaz gain, hurrengo urtera begira hobetu beharreko puntuak identifikatzen ditugu.





Udaleku itxiak (lurretako Kimuakekin)

lurreta Bizkaia ekialdean kokatutako udalerria da, 3.600 biztanle inguru dituena. 2008. urte bukaeran sortu zen Kimuak Aisialdi Elkarteak, eta, ordutik, urtero antolatu izan ditu udaleku-txandak Durangaldeko haur eta gazteekin.

Hasiera-hasieratik, balio hezitzaileetan oinarritutako hezkuntza-proiektua izan da Kimuak lan ildoetarako ardatza, eta 2013. urtean eta bereziki 2014. urteko udalekuetan ahalegin berezia egin genuen haur eta gazteen parte-hartzea sustatzeko.

Prestaketa

Kimuak Aisialdi Elkarteak, udalekue-tako hiru txanda banatzen ditugu, parte-hartzaileen adinaren arabera. Hainbat hausnarketa egin dira adinarteko-kotasunaren lanketa oztopa dezakeen erabaki honi buruz, baina gazteek eurrek eskatu izan dute beren adinekoekin batera joatea, eta eskema honi eusten zaio oraingoz:

- 7-10 urtekoekin 7 eguneko udaleku itxia

- 11-13 urtekoekin 10 eguneko udaleku itxia

- 14-17 urtekoekin 15 eguneko udaleku itxia

- Adin-tarte honetan, Lekeitioko Karkabiakoek erabiltzen duten metodologia bera aplikatu genuen.

Adin desberdinetako haur eta gazteen parte-hartzea sustatzeko, askotariko dinamikak proposatu izan ditugu:

- 7-10 urtekoekin 7 eguneko udaleku itxia:

- Izena emateko epearen irekiera

- Familiekin bilera: udalekuak hasi baino bi hilabete lehenago eta udalekue-tako izen-ematea gutxi gorabehera bera zela, udalekuetan izena emandako haurren familiekin bilera egiteko deia egin genuen. Kontuan hartu behar da familiak oro har ez daudela udaleku parte-hartzaileen metodologietara ohituta, eta, beraz, oso garrantzitsutzat jotzen dugu prozesua abiatu aurretik beraiei guztia ongi azaltzea.

- Marrazki bidezko ideia-zaparrada: familien bileran, orri batzuk banatu genituen, eta etxera joaten zirenean beren seme-alabei udalekuetan aurkitu nahi zituzten gauzei buruzko marrazkiak egiteko eskatu genien. Orriak itzultzeko, hainbat bide eskaini genizkien: eskura ematea, kultur etxean uztea, mezu elektronikoz edo whatsapppe bidaltzea...

- Hezitzaileen bilera: marrazkiak jaso ondoren, hezitzaileok marrazki horietako proposamenak udalekue-tako programan txertatzen saiatu ginen.

- 11-13 urtekoekin 10 eguneko udaleku itxia

- Izena emateko epearen irekiera

- Familiekin eta haurrekin biltzarra: udalekuak hasi baino bi hilabete lehenago eta izen-ematea nahiko aurreratuta ze-

goela, udalekuetako parte-hartzaileei eta beren familiei dei egin genien, biltzar handi bat egiteko. (Kontuan hartu behar da udalekuetako gazteak eskualde osotik etortzen direla eta ez dutela biltzarrera gerturatzeko bestelako aukerarik, helduren batek ekartzen ez baditu)

- Familiei azalpenak ematea: familiak, oro har, ez daude udaleku parte-hartzaileen metodologietara ohituta; beraz, azalpen guztiak eman genizkien, eta laguntza eskatu genien gazteak biltzarretara ekartzeko.

- Lehenengo biltzarra gazteekin: familiei azalpenak eman ondoren, gazteekin lantalde txikietan bildu ginen, eta udalekuetako programazioari buruzko proposamenak batu genituen.

- Bigarren biltzarra gazteekin: udalekuak baino hilabete lehenago, gazteei dei egin genien berriro, eta, lantalde txikietan bananduta, udalekuetan zehar beteko genuen arautegia adostu genuen.

Gomendagarria iruditzen zaigu biltzar bakoitzerako hitzorduak jartzea edo gazteekin adostea, ahalik eta gazte gehien etor daitezen.

Ekintzaren garapena

- 7-10 urtekoekin 7 eguneko udaleku itxia:

- Memento informalak: udalekuetan zehar hurrekin hitz egiteko tarteak hartzen genituen hezitzaileok, haien denbora librean edo oheratzerakoan. Iritzia eskatzen genien, eta hurrengo egunetarako proposamenak ere eskatzen genizkien.

- Eguneroko ebaluazioa: egunaren bukaeran eta gaubeilaren ondoren, so-

lasaldi txiki bat izaten genuen hurrekin, eguna balioesteko eta beren ekarpenak egiteko.

-11-13 urtekoekin 10 eguneko udaleku itxia

- Eguneroko ebaluazioa: egunaren bukaeran eta gaubeilaren ondoren, so-lasaldi txiki bat izaten genuen gazteekin, eguna denon artean balioesteko eta hurrengo egunerako prestaketak egiteko.

Ebaluazioa

- 7-10 urtekoekin 7 eguneko udaleku itxia:

- Eguneroko ebaluazioa: egunaren bukaeran eta gaubeilaren ondoren, so-lasaldi txiki bat izaten genuen hurrekin, eguna balioesteko eta beren ekarpenak egiteko.

- Azken ebaluazioa: udalekuetako azken egunean, haur guztiekin biltzarrak egin genituen taldeka, udalekua balioesteko.

- 11-13 urtekoekin 10 eguneko udaleku itxia

- Eguneroko ebaluazioa: egunaren bukaeran eta gaubeilaren ondoren, so-lasaldi txiki bat izaten genuen gazteekin, eguna denon artean balioesteko eta hurrengo egunerako prestaketak egiteko.

- Azken ebaluazioa: udalekuetako azken egunean, gazte guztiekin biltzarrak egin genituen taldeka, udalekua balioesteko.

FILOSOFIA HONI ESKUTIK HELDUTA ARI DIRA

- *Kukumixo Aisialdi Taldea (Soraluze)*

- euskara@pilpilean.com
- kukumixo@pilpilean.com

- *Kimuak Aisialdi Taldea (Iurreta)*

- kimuak@kimuak-elkartea.com

- *Karkabia Aisialdi Taldea (Lekeitio)*

- karkabia@gmail.com

- *Txatxilipurdi Elkarte (Arrasate)*

- idazkaritza@txatxilipurdi.com

- *Zaztaparrak (Arratia)*

- zaztaparrak@gmail.com

NOLA ERAMANGO DUGU AURRERA BILERA BAT?

METODOLOGIA:

Biltzar aurretik:

• **Biltzarrerako deia egiteko modua: nola bideratu haurrak biltzarrerara?**

• **Biltzarrak non/espazioa:**

- Biltzarrak beti toki berean egin daitezke, edo tokiak aldatzen joan gaitezke. Lekua aldatzeak botere-harremanak orekatzen lagun dezake, betiko inertzietatik aterako baikara.

- Toki eroso, argitsu, isil eta gozoa izatea komeni da. Kanean egiten bada, pasoko leku bat ez izatea komeni da.

• **Biltzarreko kokalekua (nola kokatuko gara biltzarrean?):**

- Denok biribilean eta maila berean jarriko gara, ahal bada eserita, denok elkar ikusteko eta entzuteko modura.

- Heldu bat baino gehiago bagaude, ez gara denok elkarren alboan eseriko, biribilean zehar banatuko gara.

Biltzarrean:

• **Nola hasi:**

- Biltzarra zergatik egingo dugun eta zer egingo dugun azaldu (informazioa eman).

- Hasieran, biltzarraren helburuak adostu eta argituko ditugu.

- Biltzarreko arauak gogoratuko ditugu.

- Garrantzitsua da biltzarraren hasieran gutako bakoitza nola dagoen galdetzea; horrela, norberaren sentimenduak eta egoera pertsonala argituta emango diogu hasiera biltzarrari. Izan ere, gure egoerak eragina izango du bai taldean, bai biltzarrean.

• **Nork hitz egin:**

- Denok hitz egingo dugu. Egoeraren arabera, haurrak edo hezitzaileak hasiko dira hizketan.

- Informazioa eman behar duena edo biltzarrerako deia egin duena hasiko da hizketan. Ondoren, txandaka hitz egingo dugu.

- Txandak errespetatzeko bitartekoren bat erabil genezake; zapi bat, baloi bat...

• **Ardurak:**

- Biltzarraren hasieran, denon artean banatuko ditugu ardurak, eta aldatzen joango gara biltzarrez biltzar:
- Dinamizatzailea: biltzarraren deitzailea izango da.
- Aktagilea: hitz egindakoa eta adostutakoa jasoko du.
 - Akta eta ekarpenak jasotzeko koaderno bat izan dezakegu. Koaderno horretan, biltzarra amaitu eta gero erabaki duguna jasoko du aktagileak, idatziz edo marrazki bidez.
 - Adostasuna adierazteko, guztiok sina dezakegu akta.

• **Parte-hartzea sustatzeko baliabideak:**

- Denbora eman
- Bestelako tresnak erabili: marratzuz, idatziz, jolasen bidez, talde txikietan hitz eginez...

• **Hezitzaileen rola:**

- Bidelagun izango gara, eta baliabideak eskainiko dizkiegu, eztabaidak, ekarpenak, erabakiak... behar bezala bideratzeko.
- Emozionalki bakoitzak daukan beharrak atzematen eta berorietan eragiten

saiatuko gara.

- Haurrek esandakoa kontuan izan, entzun, jaso... egingo dugu.
- Iritzia emango dugu, epaitu gabe, gainerako kideek bezalaxe.

Biltzarra amaitzeko:

• **Nola adostuko ditugu gauzak?**

- Argudioen bitartez eta esandakoak bilduz eta elkartuz; hezitzaileok guztiok onartuko dugun erabakia hartzen lagunduko diogu taldeari.
- Eragiteko gaitasuna izan behar dugu, denok pozik gelditzeko eraginez.
- Azalduko diegu denok batera adostutako gauzak eta denon gustuak betetzen saiatu behar dugula.
- Bozketara azken unean eta beste aukerarik ez badaukagu joko dugu.

• **Biltzarra amaitzeko:**

- Garrantzitsua da biltzarreko ideia nagusiak azaltzea eta laburpentxo bat egitea; hezitzaileok egin dezakegu, edo dinamizatzaileak, egoeraren arabera.
- Jolas txiki bat egin daiteke, edo abestitxo bat abes daiteke, biltzarrari amaiera emateko.

• **Biltzarra amaitu ondoren:**

- Biltzar osteak ere oso-oso garrantzitsuak dira; jendearekin bakarka egoteko eta batzuetan taldean jasotzen ez ditugun iritziak kontuan izateko. Edo taldean parte hartzera animatzen ez direnak animatu eta kontuan hartzeko.

DENBORA

• **Biltzarrak taldearen nahi eta gogoaren arabera, egoeraren arabera, luzera batekoak edo bestekoak izango dira. Denborari neurria hartzen jakin behar dugu, behar baino gehiago luzatzeak haur eta gazteak aspertzea eta desmotibatzea ekar baitezake.**

• **Denborak motibazioaren arabera izan behar du.**

• **Noiz egingo ditugu biltzarrak? Beti memento berean?**

- Hainbat biltzar programatuta egon daitezke, baina beste asko unean-unean sortuko dira. Batzuk aurreikusita egon arren, une jakin batzuetan ere sor daitezke.

- Biltzarrak errutina baten barruan egingo ditugu.

PARTE HARTZEA

• **Nola sustatuko dugu haur eta gazteen parte-hartzea?**

- Haur eta gazteak gustura sentitzea nahi dugu, eta,

horretarako, beharrezkoa da konfiantza izatea, giro eroso bat sortzea..., inor ez deseroso sentitzeko.

- Hezitzaileok hitza emanez.

- Gaiak beraien interesekoa izan behar du, edo interesgarri egin behar dugu.

- Beraien ideiek benetan balio dutela erakutsi behar diegu, haurren esku-hartzeei naturaltasuna ez kentzen ahaleginduz.

- Giro eroso sortuko dugu; talde txikiak egingo dira...

• **Batzuek hitz egiten ez badute, nola lortuko dugu haien hitza ere entzutea?**

- Inor ez behartuz, baina, era berean, garrantzitsu sentiaraziz.

- Hitza hartzen ez duten umeei zuzenean beraien iritzia eskatuz.

• **Norbaitek gehiegi hitz egiten badu, nola lortu oreka?**

• **Zein estrategia erabili ditzakegu guztiok eroso egoteko?**

HAURREN AISIALDI PARTE—HARTZAILEA, EUSKALDUNA, HEZITZAILEA ETA HERRITARRA GARATZEN

Koaderno bilduma:



Haurren aisialdi parte-hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra garatzen



Nola sustatu haurren parte-hartzea ikuspegi feministatik



Nola egin udaleku parte-hartzailea



Nola egin ludoteka parte-hartzailea



Parkeak bizitzeko modu berriak